

Espedientearen kodea: 2026ZZ020010

Espedientearen gaia: 2025-2026 ikasturtean Oiertzungo ikastetxeek edo guraso elkarteek antolatutako hezkuntza arautuz kanpoko ekintzak gauzatzeko dirulaguntzak.

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

DEKRETUA

2022ko ekainaren 29an onartu zituen Udalbatzak “Oiertzungo Udalaren dirulaguntzak arautzeko Ordenantzak”, 2022ko irailaren 20an argitaratu zirenak GAOen.

Oiertzungo Udalak apirilaren 29an onartu zituen “2025-2026 ikasturtean Oiertzungo ikastetxe edo guraso elkarteek antolatutako hezkuntza arautuz kanpoko ekintzak sustatzeko dirulaguntzak banatzeko oinarriak”. Hauen xedea, 2025-2026 ikasturtean, Oiertzungo ikastetxe edo guraso elkarteek antolatzen dituzten hezkuntza arautuz kanpoko ekintzetarako, norgehiagoka prozeduraren bidez, diru laguntzak banatzeko Oiertzungo Udalaren diru laguntzen oinarri arautzaileak ezartzea izanik.

Elizaldekoak Guraso Elkarteak eta Haurtzaro Ikastolak dirulaguntza eskatu dute erregistroan antolatu dituzten ekintzengatik. Eskaera aurkezteko epea ekainak 20an amaitu zen.

Kultura Zerbitzuko arduradunak uztailaren 20an gai honi buruz luzatu duen txostena ikusirik, eta beronekin adostasunean, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan honakoa

ERABAKI DUT

Lehena.- 2025-2026 ikasturtean Oiertzungo ikastetxe edo guraso elkarteek antolatutako hezkuntza arautuz kanpoko ekintzak sustatzeko dirulaguntzak banatzeko eta ordaintzeko proposamena, ondorengo taulan txertatzen dena, egitea.

Dirulaguntza hauek onartzen dira eskatzaile bakoitzerako:

	Eskolorduz kanpokoak	Ikastetxe Eguna
Haurtzaro Ikastola	5111,41 €	1503,03 €
Elizaldekoak LHI Gurasoen Elkartea	3488,59 €	1537,70 €

Bigarrena.- Diru laguntza hauek esleitzeko, guztira, 11.640,73 € ko ordainketak egitea onartzea, Oiertzungo Udalaren 2026 urteko aurrekontuko aurrekontuko 1 0311.481.326.00.01.2026 eta 1 0312.481.326.00.01.2026 zenbakidun partiden kontura. (A- 895-2026 eta A-896-2026).

Hirugarrena.- Dirulaguntza hauetako oinarriek ezarri bezala, lehen ordainketa, onartutako kopuruen % 80ari dagokiona, orain ordaintzea erabaki hau hartzearekin batera.

	Eskolorduz kanpokoak	Ikastetxe Eguna
Haurtzaro Ikastola	4089,13 €	1202,42 €
Elizaldekoak LHI Gurasoen Elkartea	2790,87 €	1230,16 €



Laugarrena.- Azken ordainketa, onartutako kopuruen gainerako % 20ari dagokiona, interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordainduko da.

Bosgarrena.- Interesatuei gastuen justifikazioa urriak 31a baino lehen aurkeztu behar dutela gogoraraztea.

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua



EKS | CSV: ESKUa8c2aa7d-211c-478c-ad5b-b71ba27aa41c

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=06310>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2026ZZ020010-Dekretua/Decreto (OIARTZUNGO UDALA)